

# *Gu Izateko Unea*

- Amatzooooo! Asko falta da herriko festetarako?

Zure logelako argia itzaltzera nijoanetan, beti pizten zaizkizu galderak. Mugimendu fisikorik gabeko, luzamendu ariketak dira. Afarian zehar, zuk eta nik eguna nola joan den xehetzen dugu konplizitatez eta zu hobeto ezagutzen zaitudala sentitzen dut gauero oheratzen zaitudanetan. Egunero zure zaintzaile egiten nauzula, alegia

- Amatxo, gaur Ixabelekin sokasaltoan ibili naiz, Mattinekin borroka bat izan dut margoengatik eta andereñoak errieta egin dit berritsuegi jarduteagatik...

Irribarre egiten dut afarietako postrea suertatzen diren zure hitzekin. Zureak diren hitzak gure egiten






ditugulako; bionak. Herriko jaiak bezala. Ekainean sartu ahala eta kaleek musikaz blaitzen gaituztelarik, urduritasuna gorpuzten hasten zaigu denoi. Eta zure kasuan, isteria ere bilakatzen da batzuetan. San Martzialak betidanik bizi izan dituzulako, batez ere “abiada” kuttuna, gure herriko hizkuntzan; “arrankada”.

San Martzialetako abiada, denontzat ere, berriro jaiotzea eta berriro ere ume izatea delako; mundua deskubritzen jarraitzeko aukera bat. Gerra urrunak, burtsaren enegarren erorketa, langabezia datuak... halakoak ahazteko unea da, bizipoza gailendu dadin.

Gu izateko unea, tristurak eta minak alde batera utzita. Gu bakarrik... baina ez bakarrik gu!

Historia istorioz osatzen da, zure ohe gaineko apalak bezala. Argazkiek, zorion uneak izozten iaioak dira. Izozten; goxotasunaren malenkoniak bero-bero hartu gaitzan bere magalean. Txuri-beltzeko argazkietatik hasi eta filtrorik modernoena dituzten selfietaraino,





arrankada gu izateko unea da. Urduritasunez zain gauden unea, munduak eta bizitzak aurrera egin dezaten.

Gu garen zoriona. Gu gaituen zoriontasuna.

- Amatxooo, mesedez, esaidazu laster hasiko direla festak!

Burutazioetan murgildua eta oraindik ere argia itzali gabe, eskutik heldu dizut irribarrez, antzerki kutsuko hasperena egin eta urtero eman ohi dizudan azalpena berriro ere emateko prest azaldu naiz.

- Ekainaren azken eguna, bere momentuan iritsiko da maitea. Bitartean, izan ezazu pazientzia pixka bat eta arrankadako zure argazkiak begiratzearekin konformatu beharko zara!

Beti izan zara bizia eta mugitua eta oraingoan ere, ezin izan zara geldirik gelditu. Ohe gaineko zure apalean, dozenaka argazki dituzu; txiki txikia zinenetik gaur egunera artekoak. Haietako batzuetan gainera, irribarretsu eta dotore jantzita, zure txapela gorriarekin buruan.

Zure argazki gogokoena hartu eta luzatu didazu. Urtero egiten duzun bezala. Beti da berbera, txuri beltzekoa.

- Amatxo, emakume hori bezala jantzita atera nahi dut.

Zure esku ximurtua hartu eta kantineraz jantzita irribarretsu jendea agurtzen agertzen zaren txuri beltzeko argazkia aparte utzi dut, zure burusiaren ondoan. Gure begiraden kriptografia, zure arnas akituaren morse kodearekin nahasten den bitartean. Alzheimerra zutaz ez dela ahantzi madarikatzen dudan bitartean.

Nire begiak malkotan urtu eta zureak pixkanaka ixten doazen artean, urteroko aitortza egin dizut nik ere.

- Ama maitea, zure ilusio bera nire ondorengoei pasatzen saiatuko naizela zin egiten dizut. Zu ez zaudenean ere, gu izaten jarraitzeko unea izaten jarrai dezan arrankadak.

Gu izaten jarraitzeko uneak,  
besteak ere behar dituelako alboan.



**Premio:**

Primer Premio (250€)

**Autor:**

Iñigo Legorburu



**a**

**1522**